

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Edateko uraren hornidura udal zerbitzua emateagatiko tasaren kontribuzio padroia. 2020ko 2. hiruhilekoa. (Espedientea: 2020/21/S213)**

Udal Ondare Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa zerbitzuak 2020 urteko 2. hiruhilekoan zehar prestatu den Audio udalerriko edateko uraren hornidura udal zerbitzua emateagatiko tasako kontribuzioa ordaindu behar dutenen zerrenda.

Alkate-udalburuak onartu du 2020ko uztailaren 8 eguneko 1347 zenbakia duen ebazpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Udal Ondare Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko bulegoan (Herriko Plaza 2. solairuan) 9:00-14:00 ordu-tegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1. atalean xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsioa jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertze errekurtsioak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2020ko abuztuaren 13 egunetik 2020ko urriaren 13 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden erreziboak 2020ko abuztuaren 13 egunean kobratuko dira.

Tasaren ordainketa euren banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank, Laboral Kutxa eta Nafarroako Caja Rural bulegoen bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko errezibua aurkeztuta. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezibuaren ale bikoiztua eskatu uren udal zerbitzu bulegoan, Izoria kalean, 4 - behea eskuinean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren errezibuak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Audio, 2020ko uztailaren 8a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**